



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1997ko azaroaren 14a

75 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

—Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

E SAILA:

Jabeldurak eta Mozioak:

—Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banakako armairuak jartzeko planarekin. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Ibai-arroen Planaren jardueri buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Sai arrearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Ehizaren antolamendurako planen izapidatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea “Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun” deklaratzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Aldáriz jauna “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren kudeatzaile izendatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoko gerentea izendatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).

- Erreserba nazionaleko esne-kuota banatzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Mahasti-hektareak izendapen ezberdinen artean banatzeko erabili diren irizpideei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkaritza duten erakundeei ordaintzeko aurrekontu-kontusailaren banaketari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Emakumeari Arreta egiteko Planari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruzko galdera. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

- Nafarroako Energi Aurrezpenerako programa. Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak onetsia (36. or.).

A SAILA:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Industria, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege Proiektuari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proiektu hori 1997ko irailaren 15eko 61 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, ez da emendakinik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 1997ko azaroaren 10a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Turismoaren inguruko disziplinari buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN ADIERAZPENA

Azken urteotan, Nafarroa nabarmen garatu da turismo toki gisa. Garapen hori sendotzeko, ezinbestekoa da kalitatezko turismo zerbitzu eta instalazioak eskaintzea. Horregatik, beharrezkoa da turismo instalazio eta zerbitzuen kalitate maila hobetzeko zenbait neurri hartzea, besteak beste Foru Komunitateko Administrazioari ikuskatzeko eta zehatzeko baliabide batzuk eskaintzea, turismo arloko arauak betetzen direla bermatzeko.

Konstituzioaren 25.1. artikulua, Konstituzio Auzitegiak horretaz egin duen interpretazioak eta Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ongi finkatu dituzte zehatzeko zuzenbide administratiboaren printzipioak.

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 44.13 artikuluan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak turismoa sustatu eta antolatzeko eskumen eskusiboa bereganatua du.

Honako Foru Lege hau legezkotasunaren printzipioa eta zehatzeko zuzenbidearen oinarrian egon behar duten gainerako printzipioak hertsiki errespetatuz prestatu da, Nafarroak turismo arloan dituen eskumenen babesean.

Foru Legearen hasieran xedea eta aplikazio esparrua finkatu dira eta, ondoren, lehendabizi, turismo arloko ikuskapena arautzen da, eginkizun espezializatu gisa, eta eginkizun hori egoki betetzeko behar diren baliabide juridikoak eskaintzen dira. Bigarrenik, zehatu daitezkeen jokabideak zehaztu eta sailkatzen dira, dagozkien zehapenak finkatuz eta jarraitu beharreko zehapen prozedura arautuz.

I. KAPITULUA

Xedea eta aplikazio esparrua

1. artikulua. Xedea.

Foru Lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitatean turismo arloa ikuskatzeko jarduera arautzea, arau-haustea tipifikatzea, administrazio zehapenak finkatzea eta segitu beharreko zehapen prozedura zehaztea.

2. artikulua. Aplikazio esparrua.

Foru Lege hau aplikatuko zaie Nafarroako Foru Komunitatean kokaturiko turismo enpresa edo establezimenduen titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoei eta turismo arloko jardueretan gure lurraldean aritzen direnei.

3. artikulua. Erantzule diren subjektuak.

1. Turismo arloan egiten diren arau-hausteen erantzule izanen dira turismo enpresa, establezimendu edo jardueraren titularrak diren pertsona fisiko eta juridikoak. Besterik egiaztatu ezean, aginduzko lizentzia edo baimenean agertzen dena izanen da titularra. Lanbide edo jardueran aritzeko aginduzkoa den administrazio gaikuntzarik ez izateagatik arau-hausteen erantzulea jarduera horretan aritzen den pertsona fisiko edo juridikoa izanen da.

2. Turismo enpresa eta jardueren titularrak erantzule izanen dira enpresa edo jarduerari atxikita dagoen edonork egiten dituen arau-hausteen-gatik, baina deusetan galarazi gabe, kaltearen ordainez, arau-haustea egiten duten pertsonen aurka zuzenbidearen arabera zilegi diren ekin-tzak.

II. KAPITULUA

Turismo arloko ikuskapena

4. artikulua. Turismo Ikuskatzailtza.

1. Turismo Ikuskatzailtza, turismo arloko eskumena duen organoaren menpean, honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Turismo arloan indarra duten xedapenak betetzen ote diren begiratzea eta egiaztatzea eta behar diren txostenak egitea.

b) Hala erabiltzaileen erreklamazio edo salaketa dagoenean, nola ustez arau-haustea edo irregularitasuna izan delako ohartarazpena dagoenean, egintza horiek egiaztatzea.

c) Azpiegitura eta enpresen funtzionamendurako behar diren baldintzei buruzko aholkularitza ematea eta txostenak egitea eta diruz laguntzen diren inbertsioen segimendua egitea.

2. Turismo Ikuskatzailtzari atxikitako funtzionarioak, dagozkien eginkizunetan aritzen direnean, agintaritzaren agente gisa arituko dira eta indarra duen arategiak haiei eskaintzen dizkien babes eta eskumenak izanen dituzte. Lana hobeki egiteko beharrezkoa dela irizten dutenean, beste administrazio edo erakunde publikoetako langile eta zerbitzuen laguntza eskatu ahalko dute.

3. Ikuskatzaileek behar den kreditazioa izanen dute, lanean ari diren guztietan erakutsi beharko dutena.

4. Ikuskapen lana, beti ere, isilpekoa izanen da. Hortaz, ikuskatzaileak beharturik daude sekretu profesionala zorrozki betetzera.

5. artikulua. Laguntzeko betebeharra.

1. Turismo enpresa eta jardueren titularrak edo ikuskapena egiten den unean haien kargu dauden pertsonak beharturik daude lanean ari diren turismo ikuskatzailtzako langileei laguntzera, turismo jarduerari dagozkion eraikinak, instalazioak, agiriak, liburuak eta erregistroak ikusi eta azter ditzaten.

2. Ikuskatzaileak beharrezkotzat hartzen duenean, jarduketan barruan, ahalmena izanen du interesatuei eskatzeko Turismo Ikuskatzailtzaren

bulegoetan ager daitezen, kasuan kasuko zitazioan adierazten denaren ondorioetarako.

3. Turismo jardueretan aritzen diren establezimendu guztietan bisita liburu bat izan beharko dute, behar bezala eginbidetua, turismo Ikuskatzailtzako funtzionarioen eskura, eta bertan agertuko dira egin diren ikuskapenak eta horien inguruabarrak.

4. Ikuskapen zerbitzuek eskatu ahalko diete erakunde ofizial, lanbide erakunde eta kontsumitzaileen elkarteei beren lana egoki egiteko behar duten informazioa eskain diezaien.

6. artikulua. Ikuskapen aktak.

1. Ikuskapenean jasotakoa akta batean bilduko da, ikuskatzaileak berak eta ikuskapena egin den turismo enpresa edo establezimenduko titularrak edo horren ordezkari legalak, edo horiek ezean, une horretan enpresa edo jardueraren kargu dagoen pertsonak sinatu beharko dutena eta kopia bat hantxe geldituko da. Sinaduraren bidez aktaren eta bertan bildutakoaren berri badela egiaztatuko da baina ez du inolaz ere erakutsiko horrekiko adostasunik dagoenik. Aipatu pertsona horiek akta sinatzeari uko egiten badiote, ikuskatzaileak egoera hori aktan bildu beharko du, horretarako ematen duten arrazoiekin batera, behar den eginbidearen bitartez.

2. Turismo Ikuskatzailtzak bere eskumeneko jardueretan egiten dituen aktetan agertzen diren egintzak egiaztat hartuko dira, kontrakoa frogatu ezean.

III. KAPITULUA

Arau-haustek

7. artikulua. Arau-haustek.

1. Turismo arloko arau-hauste administratibotzat hartuko dira Foru Lege honetan tipifikatu eta zehaturik dauden egintza eta ez-egite guztiak.

2. Egiten diren arau-hausteen ondorioz administrazioaren aurrean dagokion erantzukizuna sortuko da, zeini behar den espedientea izapidatu ondotik aurre egin beharko zaion.

3. Administrazioaren iritziz, arau-haustek hutsegite edo delitutzat har daitezkeenean, administrazio organoak Ministerio Fiskalari igorriko dio kasua eta zehapen prozedurarekin aurrera egiteari uko eginen dio, agintari judizialek erantzuna eman arte. Zehapen penala izanez gero, administrazio zehapena jartzerik ez da izanen. Delitu edo hutsegiterik ez dagoela iritziz gero, Administrazioak hasierako zehapen espedienteari jarraipena

eman diezaioke, eskumena duen jurisdikzioak frogatuz jotzen dituen egintzetan oinarrituz.

8. artikulua. Arau-hauste motak.

Turismo arloko administrazio arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izan daitezke.

9. artikulua. Arau-hauste arinak.

Honako hauek dira arau-hauste arinak:

1. Kontraturiko zerbitzuetan akatsak egitea, zerbitzuen izaera eta hitzarturiko baldintzen arabera.

2. Turismo establezimenduetako lokal, instalazio, altzari edo tresnen mantenimendu eta funtzionamenduan akatsak izatea.

3. Erabiltzailearekiko tratua zuzena ez izatea.

4. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo baimenduta dagoena baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, non ez den jakinarazi edo iragarritakoaren % 30 baino gehiago, edo ez den betetzen prezioen gainean indarra duten xedapenetan adierazitakoa.

5. Eskatu ez den edo agerian ez dagoen prezioaren baten kostua prezioan sartzea erabiltzaileari adierazi gabe.

6. Eskatu ez diren zerbitzu edo ondasunak erabili edo kontsumitzera behartzea.

7. Establezimenduaren titularraren edo prezioen aldaketari buruz edo, turismo arloko arauen arabera, jakinarazi beharreko bestelako informazioei buruzko ohartarazpen edo jakinarazpenik ez izatea.

8. Erabiltzailearen babesa bermatzeko asmoz eta enpresa, instalazio edo zerbitzuaren araubide eta funtzionamendu egokia izan dadin, kontratazio, dokumentazio, fakturazio, informazio, liburu eta erregistroen gainean ezarrita dauden derrigorezko arauak ez betetzea.

9. Egindako kontratua eteteko edo eman beharreko zerbitzua bertan behera uzteko arauak ez betetzea.

10. Erreklamazio-orririk ez izatea edo, eskatzen direnean, atera nahi ez izatea.

11. Bezeroak turismo enpresarekin duen harremana nolakoa den kreditatzeko agiriak eta legez emandako fakturak haren esku jarri nahi ez izatea.

12. Erregelamenduaren arabera establezimenduetan ageri beharreko adierazgarriak ez izatea edo eskatu bezala ez paratzea.

13. Produktu eta zerbitzuen eta horien prezioen publizitatea arautzen duten xedapenak ez betetzea.

14. Zerbitzuen prestazioaren inguruko ezaugarri partikularrei publizitaterik ez ematea.

15. Orohar, turismo arloko arauetan ezarritako baldintzak, beharkizunak eta debekuak ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat hartzerik ez dagoenean.

10. artikulua. Arau-hauste larriak.

Hauek dira arau-hauste larriak:

1. Turismo zerbitzu edo jardueraren bat eskaintzea edo horretan aritzea, indarra duten arauen arabera horretarako behar den aginduzko baimena edo titulazioa izan gabe.

2. Turismo jarduera batean aritzeko edo hura sailkatzeko behar den baimen, titulu, lizentzia, jakinarazpen edo gaikuntza luzatzeko eskatzen diren baldintza edo beharkizunak ez betetzea edo aldatzea.

3. Jardueraren sailkapenaren arabera dagozkion izen, errotulu edo adierazgarrien orde, beste batzuk erabiltzea.

4. Establezimenduaren egitura, edukiera edo ezaugarriak Administrazioaren baimenik gabe aldatzea, hori aginduzkoa den kasuetan.

5. Kontraturiko zerbitzuren bat ez ematea edo hitzartu ziren kalitate, kantitate edo izaeraren inguruko baldintzak ez betetzea.

6. Sarrera librea ez izatea edo bezeroren bat egozte, justifikaziorik gabe.

7. Turismo arloan eskumena duen Administrazioari jakinarazitakoa edo iragarrita dagoena baino gehiago kobratzea zerbitzuren batengatik, jakinarazi edo iragarritakoaren % 30 baino gehiago baldin bada.

8. Turismo Ikuskatzailearen edo eskumena duten beste organo administratibo batzuen jarduna ez onartzea edo trabak jartzea.

9. Turismo jardueretan eskaintzen diren zerbitzu eta prestazioen oinarritzko elementuen inguruan, nahasmendura eraman edo iruzur zantzuak dituen publizitatea agertzea.

10. Plazen erreserbari dagokionez, zerbitzua behar bezala ez ematea, dagozkion plazak baino gehiago kontratatu izateagatik.

11. Turismoko administrazioak azpiegituretan edo funtzionamenduan antzemandako akatsak zuzentzeko emandako epeak ez betetzea.

12. Turismo arloko arauak eskatzen duten kapital sozialaren zenbatekoa, aseguruak bermak edo fidantzak ez mantentzea.

13. Turismo kanpalekuetan kanpinzale egonkor edo bertan bizi direnak onartzea eta debekaturik dauden kanpin unitateak ezartzen uztea.

14. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia haustea alderdi ez-funtsezkoaren batean.

15. Turismo zerbitzuak emateko, legez gaiturik ez dauden toki, lokal, ibilgailu edo pertsonak erabiltzea edo, horretarako gaiturik egonda ere, erabiltzetik utziak egotea.

16. Informazio ez-zehatza edo dokumentazio faltsua aurkeztea.

11. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Hauek dira arau-hauste oso larriak:

1. Turismo jardueraren batean ezkutuan edo arautegia larriki hautsiz aritzea.

2. Turismo establezimenduetan suteei aurrea hartzeari eta bertako segurtasunari buruzko arautegia funtsezko alderdiren batean haustea.

3. Turismo jardueraren bat eraiki, ireki edo bertan aritzeko derrigorrezko baimen, titulu, lizentzia edo gaikuntzak emateko funtsezko baldintzak iruzur egin asmoz aldatzea.

4. Arau-hauste larriak behin baino gehiagotan egitea.

5. Horiez gain, arau-hauste oso larritzat hartuko dira arau-hauste larri gisa tipifikatuak, honako inguruabarren bat gertatzen denean:

a) Egindakoaren edo ez-egitezko jokabidearen ondorioz, kalte handia eragitea Nafarroako interes turistikoari, kasuan kasuko turismo lanbide edo jardueraren izen onari edo, orohar, bezeroei.

b) Arau-haustearen egintzan edo ez-egitezko jokabide horretan asmo txar, makurkeria edo utzieria nabarmena antzematea.

12. artikulua. Adiskidetzeak eta konponketak.

Zehapen espedienteak izapidatu aurretik edo horren bitartean, aukera emanen zaio ustezko arau-haustearen egileari eragindako kalteak konpon ditzan edo administrazio irregulartasunak zuzentzeko.

Turismo zerbitzua eskaintzen duten enpresek kontsumitzaile eta erabiltzaileei eragindako kalteak konpontzeko borondatezko adiskidetze-egintza egin ahalko da, bakar-bakarrik, interes partikularra

nagusi den erreklamazioetan eta interes hori kuantifikagarria baldin bada.

Borondatezko adiskidetzearen ondorio berberak izanen ditu bi alderdiak Kontsumoko Arbitraje Sistemaren menpean jartzeak.

Administrazio irregulartasunak konpontzea onartuko da bakarrik, arau-haustearen garrantzia eta eragindako kaltea ikusita, bidezkoa denean.

Adiskidetzea eta kalteen konponketa izanez gero, jarduketak artxibatu edo arau-haustearen kalifikazioa jaitsiko dira.

IV. KAPITULUA

Zehapenak

13. artikulua. Zehapenak.

Foru Lege honetan eta turismo arloko gainerako xedapenetakoaren aurkako arau-hausteen ondorioz, honako zehapen hauek jarriko dira:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna.

c) Turismo jardueretan aritzeko ezgaitzea edo establezimendua ixtea urte batez, gehienez.

d) Titulua edo baimena bertan behera uztea edo establezimendua ixtea.

14. artikulua. Arau-haustea eta zehapenak.

1. Arau-hausteei honako zehapenak dagozkie:

a) Arau-hauste arinengatik, ohartarazpena edo 100.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

b) Arau-hauste larriengatik, 500.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

c) Arau-hauste oso larriengatik, 5.000.000 pezeta bitarteko isuna jarriko da.

2. Zehapen nagusi gisa edo osagarri gisa instalazioa edo establezimendua ixtea edo jarduera etetea ere erabaki daiteke, sei hilabeteko epera arte arau-hauste larriak direnean, eta sei hilabete-tik urte batera arte, arau-hauste oso larriak direnean.

3. Titulua edo baimena bertan behera uztea eta establezimendua behin betikoz ixtea ere erabaki daiteke, arau-hauste oso larriak behin baino gehiagotan egiten direnean.

Jarduera bertan behera uzteko edo establezimendua ixteko erabakiaren berri bertako Udalarri emanen zaio eta hango agintaritzako delegatuen laguntza ere eska daiteke, erabakia betearazteko.

4. Arau-hauste larri edo oso larriak egiten direnean, zehapen osagarri gisa, erabaki ahalko da

arau-haustea egin duen pertsonari, zehapenaren xede den jardueran aritzeko, Nafarroako Foru Komunitateari eskatu eta handik jaso dituen diru-laguntza edo laguntza finantzario guztiak kentzea edo etetea.

5. Jardueran aritzeko eskaera izapidatze-aldian baldin badago, ez da zehapentzat hartuko aginduzko baimena ez izateagatik erabaki litekeen establezimenduaren edo instalazioen itxiera, indarra duten arauekin bat, ez eta baimena lortu artean erabaki litekeen jardueraren funtzionamenduaren etetea ere. Establezimenduaren itxiera edo funtzionamenduaren etetea turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusiak erabakiko du, interesatuari entzutea eman ondoren. Erabaki hori har daiteke deusetan galarazi gabe dagokion zehapen espedientea irekitzea.

15. artikulua. Zehapenen graduazioa.

Zehapenak jarriko dira kontuan harturik administrazio arau-haustea egin zenean gertatu ziren inguruabarrak eta, batez ere, honako hauek:

- a) Ukitutakoei eragindako kalteak.
- b) Ukituriko pertsona kopurua.
- c) Legez kontra lorturiko onuraren zenbatekoa.
- d) Enpresaren ahalmen ekonomikoa.
- e) Turismo sektoreari eta Nafarroako irudi turistikoari eragindako ondorio negatiboak.
- f) Arau-hausteen berregiteak.
- g) Prozedura hastea ekarri zuten irregulartasunak espedientearen izapidatze-aldian konpontzen ote diren.

16. artikulua. Berregiteak.

Foru Lege honen ondorioetarako, berregitea izanen da arau-haustearen erantzulea, administrazio bidetik ebazpen irmoaren bidez, hutsegite berbera dela kausa, urte bateko epean bi aldiz zehatu denean, lehenbiziko hutsegitea egin zenean, lehenbiziko hutsegitea egin zenean, hiru aldiz urte bateko epean.

17. artikulua. Behartzeko isunak.

Aurreko artikuluetan zehaztu isunak gorabehera, jarduera edo establezimendua arauetan ezarritakoari egokitzeko errekerimenduan adierazi epeak amaiturik, zehapena igorri duten organoek behartzeko isunak ezar ditzakete, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 99. artikuluan xedatutakoari jarraikiz. Isun horietako bakoitzaren zenbatekoa ez da izanen egindako arau-haustearengatik jarritako isunaren % 20 baino handiagoa.

18. artikulua. Eskumena.

Foru Lege honetan finkaturiko zehapenak ezartzeko eskumena honako hauek dute:

1. Turismo arloan eskumena duen zuzendari nagusia, arau-hauste arin edo larriak direnean.
2. Arlo horretan eskumena duen kontseilaria, arau-haustea oso larriak direnean.
3. Nafarroako Gobernua, establezimendua ixtea ekartzen duten arau-hauste oso larriak direnean.

V. KAPITULUA **Preskripzioa eta iraungipena.**

19. artikulua. Preskripzioa.

1. Foru Lege honetan aurreikusitako arau-hauste oso larriak bi urteren buruan preskribituko dira, urte baten buruan larriak eta sei hilabetera arinak.

Arau-hausteak preskribitzeko epea hutsegitea egin zen egunetik aurrera kontatzen hasiko da.

Jarduera jarrai baten ondoriozko arau-haustetan, preskripzioa zenbartzeko lehen eguna hauxe izango da: jarduera bukatu denekoa edo arau-hausteari buru ematen dion azken egintzarena.

Preskripzioa eten egingen da dagokion zehapen espedientea irekitzen denean, interesatuak horren berri izanik.

2. Hutsegite oso larriengatik jarritako zehapenak hiru urteren buruan preskribituko dira, hutsegite larriengatik jarritakoak bi urteren buruan eta hutsegite arinengatik urte batera.

Zehapenak preskribitzeko epea zehapena jaritzeko ebazpena irmo bilakatu eta biharamunetik aurrera kontatzen hasiko da.

Preskripzioaldia eten egingen da exekuzio prozedurari hasiera ematen zaion momentuan, interesatua jakinaren gainean egonda.

20. artikulua. Iraungipena.

Zehapen prozedura hasi eta hiru hilabeteko epearen barruan salatutakoari horren jakinarazpena egiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira. Era berean, izapidatze-aldi baten jakinarazpena interesatuari egin eta hiru hilabeteko epearen barruan, Administrazioari egotzi beharreko arrazoiengatik, hurrengo aldiari ekiten ez bazaio, jarduketak artxibatuko dira.

Halaber, jarduketak artxibatuko dira, interesatuak eskatuta edo ebazpena emateko eskumena

duen organoak ofizios erabakita, ebazpena emateko epea amaitu eta hogeita hamar egun igarota.

Jarduketak artxibatzen badira, salatutakoari jakinarazi beharko zaio.

VII. KAPITULUA **Zehapen prozedura**

21. artikulua. Hasiera.

1. Turismo arloko zehapen prozedura, eskumena duen organoak harturiko erabakiaren bidez, ofizios hasiko da jarduketa hauetariko edozeinen ondorioz:

a) Turismo ikuskatzaitzak egindako akten ondorioz.

b) Agintaritzak edo administrazio organo batek, ustezko arau-hauste baten berri izanik, egindako jakinarazpenaren ondorioz.

c) Turismo establezimenduetako erreklamazio orrietan jasotako kexa edo salaketaren ondorioz.

d) Indarra duten prozedurari buruzko arauak ezartzen dutenari jarraikiz, egindako erreklamazio baten ondorioz.

e) Legez eraturiko elkarteren batek sarturiko salaketaren ondorioz.

f) Turismo arloan eskumena duen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio organo eskudunaren beraren ekinbidez, ustezko arau-hauste baten berri duenean, zernahiren bitartez.

2. Espedientea hasi aurretik gertatutakoa argitzeko informazioa biltzea agindu daiteke. Egindako jarduketak ikusirik eta gertatutakoa azterturik, arau-haustearen zantzuak ote direnentz erabakiko da eta, bidezko denean, zehapen prozedura irekiko. Prozedura izapidatzeko, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen IX. tituluaren II. kapituluaren bildutako irizpideei jarraikiko zaie.

22. artikulua. Aurreneurriak.

1. Salbuespen gisa, segurtasun arrazoiengatik beharrezkoa denean, turismo zerbitzuaren erabil-tzailearen interes ekonomikoentzako arrisku larria dagoenean edo Nafarroako irudi turistikoarendako kalte larria eta benetakoa etor daitekeenean, establezimendua berehala ixtea edo instalazioak pre-

zintatzea erabaki ahalko da, aurreneurri gisa, akatsak zuzentzeko behar den denborarako eta, gehienez ere, espedientea ebatzi arte.

2. Espedientea irekitzeko eskumena duen agintaritzak aurreneurri horiek hartzeko esku ere izanen du, ebazpen arrazoituaren bidez, interesatuari entzutea eman ondoren.

23. artikulua. Zehapenak betetzea.

Foru Lege honetan xedatutakoaren babesean ezartzen diren zehapenak administrazio bidetara amaiara ematen diotenean berehala betearazi beharko dira, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen xedatutakoari jarraikiz.

Zehapen prozeduraren ebazpenen aurka Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Guztiendako Administrazio Prozedurari buruzko Legearen VII. Tituluaren II. kapituluaren xedatutakoari jarraikiz bidezko diren helegiteak jarri ahalko dira.

24. artikulua. Zehapenen erregistroa.

Turismo arloan eskumena duen departamentuan zehapenen erregistro bat irekiko da, Foru Lege hau hausteagatik ezartzen diren zehapen irmoen idazpenak hartuko dituen. Idazpen horiek deuseztatu egingo dira erregistratu eta urte batera.

Xedapen iragankorra

Lege honek indarra hartzen duen egunean irekita dauden espedienteak izapidatu eta ebatziko dira hasiera eman zitzaienean indarra zuten xedapenen arabera.

Azken Xedapenak

Lehena. Foru Lege honetan aurreikusten diren zehapenen zenbatekoak berrikusi eta eguneratu ahalko dira Nafarroako Foru Komunitateko Aurrekontuen Legeetan.

Bigarrena. Ahalmena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta turismo arloan eskumena duen kontseilariari Foru Lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

Hirugarrena. Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta egun berean hartuko du indarra.

E Saila:
JABELDURAK ETA MOZIOAK

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banakako armairuak jartzeko planarekin

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK ONETSIA

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 197ko azaroaren 6ko bilkuran onetsi zuen Ebazpen bat, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banakako armairuak jartzeko planarekin. Biltzarreko Erregelamenduko 112 artikuluan ezarritakoa betez, Ebazpen hori Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko azaroaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Ebazpena, Nafarroako Gobernua premiatzen duena txosten bat igor dezan, lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banakako armairuak jartzeko planarekin

Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premiatzen du Parlamentura igor dezan txosten bat Nafarroako lehen eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan banakako armairuak jartzeko planarekin, saiakuntza gisa, planak aipatu zentro guztietara hedatzea aurreikusiko du.

2. Nafarroako Gobernua premiatzea kanpaina bat egin dezan hezkuntza-komunitate osoa sentsibilizatzeko Nafarroako eskola-umeek eskolako motxilak behar bezala erabil ditzaten.

F Sails:
GALDERAK

Ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ubide eta malkarren garbiketarekin zerikusia daukaten Ingurugiro Departamentuaren jarduketa batzuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 9a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak Departamentuak ubide eta sakanen garbiketa debekatzeari buruz idatziz erantzun diezaiotetan egin duen galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Ubideak eta sakanak garbitzeko zer jarduketa debekatu diren azken urtean, eskaera, beronen data, erantzuna eta honen arrazoiei buruzko datuekin.

Ez da bidezkoa hemen informaziorik ematea ubideak eta sakanak erreketak eginez garbitzeari buruz, izan ere Nafarroako oihan ondarea babesu eta garatzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 39. artikuluan berariaz debekatuta dagoelako.

Ubideak eta sakanak prozedura mekanikoak erabiliz garbitzea ingurugiro baimena edo txostena behar duen jarduera da, uztailaren 19ko 2/1993 Foru Legearen 33. artikulua araberak.

Baina ez dago ubideak eta sakanak prozedura horretaz garbitzeko lanetarako Nafarroako Gober-

nuak debekatu duen eskaerarik. Arazo horri buruzko informazio osatuagoa emateko asmoz, ondotik ematen da 1997. urtean, orain artekoan, jasotako eskabideen laburpen bat, bai eta zein prozedura erabili den eta izapideak zein egoeratan diren ere.

| 1997. urtea | Izapidatuak | | | Izapidean |
|-----------------|--------------------------|--------------------|---------------|---------------|
| Zenbat eskabide | Erabaki bidez baimenduak | Ofizios baimenduta | Txosten bidez | Txosten bidez |
| 64 | 14 | 25 | 11 | 14 |

Izaera berekoak baina esparru eta garrantzi handiagoko arazoak dira ubide eta sakanak garbitu eta ibaiak oneratzeko. Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren apirilaren 22ko 431/1997 eta maiatzaren 8ko 543/1997 Foru Aginduen bidez arautu ziren jarduketa horietarako entitate administratiboetara dirulaguntzak ematea eta hitzarmenak ezartzea.

Lan horiek ondoko moduetan egin daitezke:

- a) Nafarroako Gobernuaren entitate administratiboek eta kontrol entitateek emandako esleipena;
- b) Nafarroako Gobernuaren esleipena;
- c) Nafarroako Gobernuaren makinak erabiltzea.

1997ko jarduketak eta aurreikuspenak honela laburbildu daitezke:

| Entitate administratiboetan egindako lanak | | | |
|--|----------|-----------|---------------------------|
| 1997. urtea | Burutuak | Izapidean | Prestaketan edo eskatutak |
| Hitzarmenak | 4 | 2 | 2 |
| Naf. Gob. esleitutakoak | 1 | 3 | - |
| Baliab. prop. burututakoak | 6 | 4 | 9 |

2. Debekuak egon baldin badira, Ingurugiro Departamentuak nola ebaluatzen dituen planteatu

beharreko alternatibak, beharrezko joko balitu, eskaeran nolabaiteko arriskurik ikustekontan, hori ekiditeko.

Ubide eta sakanak garbitzeko ingurugiroko baimenatarako eskabideak izapidatzeari ukorik eman ez zaionez, ezin da inongo azalpenik eman gai horretaz

3. Zer jarduketa burutu eta zer neurri hartu duen Ingurugiro Departamentuak horrelako egozpenei aurre egiteko.

Udan gertatu diren ekaitz ugariak ubide eta sakan askok gainezka egitea eragin dute eta, ondorioz, nekazaritza-lurretan higadura sortu dute. Hori dela eta, azken hilabete hauetan jasotako eskabideen kopurua proportzioan igo da. Gainera, eskabideetako askotan ikusten da lanak presaz egin nahi direla ereiteko garaia hasi baino lehenago.

Eskabideen izapidaketan gerta daitezkeen atzerapenak ekiditeko asmoz, prozedura laburtu bat ezarri da, izan ere langile gutxi baitaude arazo horien jarraipena egiteko. Prozedura horren arabera, behin eskabidea jaso ondoren, Departamentu honetako zelaiko langileei igortzen zaie. Langile horiek tokian tokian egiaztatzen dituzte egin nahi diren jarduketak eta bestelako inguruabarrak. Gero dagokion txostena eta zehaztapenak egiten dituzte, lanak behar bezala egin daitezzen. Txosten horren kopia da eskatzaileari ingurugiroko baimen gisa ematen zaiona, hain zuzen ere eskatutako garbiketa berehala egiten has dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 2an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ospitaleetan kogenerazio-sistemak ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 11

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Kogenerazio-sistemak ezarrita dituzten ospitaleei eta, halakorik balitz, lortutako emaitzei buruz Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak kogenerazio-planta bat dauka Nafarroako Ospitalean, SINAE enpresarekin 1994an eginiko lankidetzeta-hitzarmen baten ondorioz, eta emaitzak positibo jotzen dira.

Guztizko inbertsioa 111.389.000 pezetakoa izan zen (BEZ barne), eta kopuru berean finantzatu zuten Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta aipatu enpresak; hori dela-eta, etekinak ere modu berean banatzen dituzte elkarrekin.

1996 urte osoko daturik garrantzitsuenak hauek dira:

- Produzituriko Kwhak:6.608.424
- Lorturiko aurrezki gordina:58.226.027 pta.
- Mantenu-kostuak:14.326.570 pta.
- Guztizko aurrezki garbia:43.899.457 pta.
- Nafarroako Ospit. aurrezkoa:21.949.728 pta.

Mantenu-kostuan dagokion urteko kostua eta planta martxan jarri zenetik bost urte igaro orduko SINAEk egingo duen motorreko elementu mugikor guztien ordezketa zati proportzionala sartu dira. Bost urte horiek igaro ondoren, planta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jabetza eskusibokoa izatera pasatuko da.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko urriaren 6a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak Leipzigko Azokan parte hartzearen diru-kostuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak Nafarroako Gobernuak Leipzigko Azokan parte hartzeari buruz egin duen galdera dela-eta, hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó LLevat jaunaren erantzuna:

1. Zein izan zen Nafarroako Gobernuak ordaindu zuen diru-kostua Leipzigko azokan parte hartzeagatik, beti ere gastu-kapitulua zahartzuz (bidai gastuak, egoitzak, dietak, publizitatea eta abar)?

Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egin zigun parlamentu-galderara jotzen dugu, gure Departamentuak 1997ko apirilaren 7an erantzun zuen hartara:

Foru Komunitatearen pabilioiarengatik ordaindu beharko dituen kostu guztiak.

Benetako gastuak

- 1.- Azokako tegia alokatzea
(1.600 m²: 38 enpresa; VIP gela;
antzeztokia; jantokia)4.864.410
- 2.- Pabilioia eraikitzea, kentzea
eta mantentzea19.488.000
- 3.- Merkatalgaiak garraiatzea800.000
- 4.- Pabilioiaren garbiketa626.039
- 5.- Pabilioiaren segurtasuna571.017
- 6.- Azafatak (18) (soldata, segurtasuna,
uniformeak alokatzea, interpretariak) .4.068.633
- 7.- Erantzukizun zibileko aseguru-polizak .158.694
- 8.- Musika emanaldiak
(tuna, orkestra, lojamendua,
mantenua, soinu ekipoa, taxiak)3.083.610

- 9.- Komunikabideak2.172.868
(bidaiak, lojamendua, prentsa-iragarkiak)
- 10.- Saxoniako kazetariak286.270
- 11.- Merkataritza eta Turismoko
langileak pabilioak gobernatzeko
bidaiak, lojamendua eta mantenua579.794
- 12.- Argitalpenak (katalogoa, itzulpenak,
kredentzialak)434.900
- 13.- Bestelakoak (Askotarikoak, taxiak,
jantziak, edukiontzia)232.235
- 14.- Telefonoa.....218.750
- 15.- Gonbitak eta erakunde ekintzak494.826
- 16.- Sukaldaritza zerbitzua1.500.000
Guztira.....40.580.046

Erakusleen dirusarrerak

- 38 erakusle (44 enpresa),
stand eta azafaten alokairua21.314.400 pzta.
Aldea19.265.646 pzta.

2. Leipzigko Azokara joan ziren Nafarroako enpresen zerrenda.

Berriro joko dugu Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak egin zigun parlamentu-galderara, gure Departamentuak 1997ko apirilaren 7an erantzun zuen hartara:

Hogeita zortzi stand eta berrogeita lau enpresa:

– Anaex, Nafarroako Enpresa Esportatzaileen Elkarteak, bere marka duten hiru enpresen ordezkari.

– Ascensores Navarra, S.A.L. (ANSAL)

– Nafarroako ardo espportatzaileen elkarteak, 16 enpresa ardogileren ordezkari.

– Cintruenigoko udala, hiru enpresen ordezkari (bere marka duten alabastro, kosmetika eta ardoak)

– Azcoyen C. Internacional, S.A.

– Bacaicoa, Industrias Plásticas, S.A.

– Bajamar, S.A.

– Bodegas Irache, s.l.

– Byse Electrodomésticos, S.A.

- Caja Ahorros de Navarra, (C.A.N.)
 - Nafarroako Merkataritza eta Industri Ganbara Ofiziala.
 - Cetenasa, Ain, Cein, (3 enpresa).
 - Comercial Europea Porcelanas, S.A.L.
 - Diario de Noticias.
 - Embega, S. COOP.
 - F. R. Sillones, S.L.
 - Nafarroako Gobernua - Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua, hurrengo Kontseilu Arauemaileak ordezkatur: ardoa, patxarana, zainzuria, gazta, orburua, pikillo piperra.
 - Nafarroako Gobernua, Turismo Zerbitzua.
 - ICER. Materiales de Fricción, S.A.
 - Instituto Científico y Tecnológico (I.C.T. - Nafarroako Unibertsitatea).
 - Jofemar, S.A.
 - Conservas JAE (Juan Ayesa e Hijos, S.L.).
 - Lecumberri - Suberviola, S.A.
 - Líneas Aéreas Navarras (LAN).
 - Manufacturas Metálicas Jevit, S.A.
 - Mepamsa Group.
 - NH Hoteles.
 - Ofexco, S.L. (torlojoak, sua amatatzekoak eta xafla plastifikatua).
 - Oficina de Congresos, Pamplona Convention Bureau.
 - Pamplona Televisión.
 - Policad Industrial, S.L.
 - Remsa (Revestimientos Especiales Moldeados, S.A.)
 - Sodena (Sociedad de Desarrollo de Navarra).
 - Sonnen - Basermann España, S.A.
 - Tegui Electrónica, S.A.
 - Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP)
 - Viscofan, S.A.
 - Volkswagen, S.A.
3. Zein izan zen Leipzigko Azokako Nafarroako Pabilioian metro karratuaren diru-kostua? Zein da Nafarroako Gobernuak parte hartzen duen

antzeko azoketako pabilioi eta standetako metro karratuaren batezbesteko kostua?

Azokak 4.864.410 pta. kobratu zuen alokairuagatik. Nafarroako pabilioiak 1.600 metro koadroko azalera zuenez, metro karratuko 3.040,25 pta. ateratzen da. Pabilioia montatu, kendu eta mantentzearen kostuak, metro karratuko, 12.180 pta. jo zuen.

4. Zein izan da Nafarroko enpresentzat Leipzigko Azokan partehartzearen errentagarritasuna (kostua-onura)?

Berehalako errentagarritasun ekonomikoa, inbertitutako kostua - espero den mozkina, zaila da ebaluatzen, epe laburrean, baina hauxe aurre-ratu dezakegu:

a) 44 enpresak hartu du parte, 38 standetan. Enpresa horien %50 lehenbiziko aldiz joan ziren nazioarteko azoka batera, Espainiatik at, eta negozioak egiteko aukera izan zuten (kontratuak profesionalekin, katalogoak hartu, makineria erosteko interesa azaldu zuten bezeroak, material elektrikoa banatzen duten enpresekiko bilerak, eta abar)

b) Enpresa mailako harremanak egin ziren balizko bezero-banatzailerekin, merkataritza-sareekin eta erakundeekin (Saxoniako sustapen sozietatearekin, Leipzigko Merkataritza Ganbararekin, Hungaria, Polonia eta Bielorrusiako enpresarioen ordezkariarekin, Herbeheretako agintari eta enpresarioekin, Kiev-ko nekazaritza-ustategi handien zuzendariekin), eta abar.

c) Produktuak saldu baziren ere (alabastroa, zurezko koadroak, kontserbak, ardoa, lurrin eta kosmetika, polietileno-zko boltsak), Azokaren ondoren hasi da igartzen espero zen mozkina, parte hartu duten enpresek jaso dituzten komunikazioen eta egindako kontratuen ondorioz. Hurrengo enpresetan, esate baterako: Ascensores Navarra, S.A.L., Ofexco, S.L., Azcoyen, BYSE, S.A., Publicidad Industrial, S.L., Bodegas Irache, S.L, F.R. Sillones S.L., Mepamsa-Group, S.A., Jofemar).

Azokaratu diren enpresen mozkin ekonomikoak ez dira berehala etortzen, ohikoa denez, epe ertainean eta luzean baizik. Izan diren harremanengatik eta gauzatutako negozio-aukerengatik uste dugu azoka horrek enpresa-mailan ekarri duen onura, egindako inbertsioak baino askoz gehiago dela.

Iruñean, 1997ko urriaren 9an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó LLevat

Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Luis Gerardo López Eslava Foru Parlamentari jaunak Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko irailaren 27a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Luis Gerardo López Eslava, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak Nafarroak Lisboako Expo-98an izanen duen lekuari buruz egin duen galdera dela-eta, hona Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilari den Ramón Bultó LLevat jaunaren erantzuna:

1. Nolakoa izanen da eta zein eduki izanen du Lisboarako prestatzen ari den standak?

Ez Nafarroako Gobernuak, ez beste autonomia erkidegorik ere ez du stand berekirik. Espainiako pabilioi orokorra dago

2. Zein da Nafarroako Gobernuak Expo-98ko bere ordezkariarako aurreikusi duen aurrekontua?

12.000.000 pta.ko aurrekontua dago (Kultura eta Industria Departamentuek, erdibanaturik).

- Nafarroako eguna Espainiako pabilioian1.000.000
- Nafarroako aste gastronomikoa.....4.000.000
- Nafarroako talde folklorikoak1.000.000

- "Pablo Sarasate" orkestraren kontzertua2.500.000
- "Ortiz Echagüe" argazki-erakusketa1.500.000
- Nafarroaren presentzia izango duten kongresu, jardunaldi eta erakusketendako laguntza.....2.000.000
- Guztira12.000.000

3. Zein dira proiektuaren erantzuleak?

Kultura Zuzendaritza Orokorra eta Merkataritza eta Turismo Zuzendaritza Orokorra dira proiektuaren arduradun.

4. Zein enpresa edo enpresarien elkartetara jo du Nafarroako Gobernuak Nafarroako pabilioian arte hartzeko?, horietatik zeintzuk hartuko dute parte?, zein baldintzetan?

Nafarroako Ostalaritza Enpresarioen Elkarteari proposatu zaio ados jar daitezela izangai bat aurkezteko.

Expo 98ko Komisaritzak zuzenean ordainduko dizkio sukaldariari izandako gastuak. Nafarroako Gobernuak, bere aldetik, 4.000.000 pta. ordainduko dizkio Expo 98ko Komisaritzari, konpentsazio gisa.

5. Zein talde artistikotara jo du Nafarroako Gobernuak Nafarroako pabilioian parte hartzeko?, horietatik zeintzuk hartuko dute parte?, zein baldintzetan?

Talde artistikoen aukeraketa gai kulturala da eta Kultura Zuzendaritza Orokorraren bidez egingo da

Iruñean, 1997ko urriaren 9an

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilaria: Ramón Bultó LLevat

Ibai-arroen Planaren jardueri buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, M^a Rosario Villanueva Iturralde Foru Parlamentari andreak ibai-arroen Planaren jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ibai-arroen Planaren jardueri buruz M^a Rosario Villanueva Iturralde, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari andreak idatziz erantzun dakien eginitako galderak direla-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Ingurugiro Departamentua hasia al da garbiketa-lanak egiten zenbait ibaitako arroetan? Hala bada, zein ibaitan, noiztik eta zein lan burutzen ari da?

Joan den urtarriletik, iaz jasotako eskaerekin eginitako programa burutzen ari da Ingurugiro Departamentua.

Urtarrileko azken egunetan Odrón, Linares eta Cidacos ibaien arroan egondako eurite itzelek aldatu zuten aipatu programa lehenengo aldiz.

Otsailaren hasieran, kalteak konpontzea premiazkoa izanik, eta uholde gehiago saihestearren, Odrón ibaiaren zati baxuaren garbiketa orokor bat egin zen, negutegi-instalazio batzuk eta ostruka-granja bat nabarmenki ukituz. Beranduago, abuztuan eta irailean, Odrón ibaia garbitzeari ekin zaio berriro, Urantziatik ibaiaren uretan behera, hala nola ibai horren isurkietan eta malkarretan (Sansol, El Busto, Sorlada eta Piedramillera herrietan), gaur arte; eta garbiketa hau Torres del Río, Ubago, Muez eta Mendaza herrietan jarraitzeko asmoa dago.

Bestalde, Cidacos ibaiaren ibilguan eragin handia izan zuten urtarrileko euriteak zirela-eta, datu-bilketa bat egin zen bertan, eta Tafalla, Erriberri, Beire eta Pitillas herrietako oroitidazki tekniko balioztatu egokiak landu ziren. Gaur egun egoki diren obrei ekiten ari zaie.

Halaber, aurretik ikusitako dragatze- eta garbiketa-programaren barnean, Zangozan Aragoi ibaia dragatu da, eta hastear daude, urriko lehenengo hamabostaldian, honako jarduketak hauek: Burlata eta Atarrabian, Arga eta Ultzama ibaietan; Betelun, Araxes ibaian, eta Lakuntzan, Arakil ibaian.

Premiazko izaerarekin ere, sakon-garbiketarak egiten ari dira Biurrun, Tiebas eta Arrizabalagako Kontzejuetan, eta Robo ibaiaren eta bere isurkien dragatze-lanari ekin zaio Ukar, Eneritz, Muruzabal eta Obanosen, eta lan honek jarraipen bat izango du, eguraldiak uzten baldin badu.

2- Zein da Nafarroako Gobernuak ibai-arroei buruzko plana egiteko bere buruari jarri dion egutegia?

Ibilgu guztietako jarduketak 1968z geroztik burutzen ari direnez, eta bereziki Ebro, Aragoi, Arga eta Ega ibaietan, horien egungo egoera aski ona da. Dena den, aurretik aipaturiko ibaien arroetako ertzak eta ibilguak finkatzeko mantenuko eta garbiketa hautakorreko plan baten prestaketa abian da jada, eskualde zehatzetan jardun ahal izateko, zeren eta horietan, ibilguaren trazaduragatik, aldizkako eskuhartzea beharrezkoa baita. Beraz, egutegia jarraia da, eta trinkotu egiten da, beharrezkoa bada, ezinbesteko egoeren aurrean. 1998. urterako jarduera nagusiei buruzko dokumentu bat eta horien balorazioa prest eduki nahi dira.

3.- Plan horrek zein jarduera-multzo hartuko du?

Burutzen ari diren jarduketek emaitza positiboak izan dituzte, 1988, 1992 eta 1993 urteetako uholde historikoetan frogatuta geratu zen bezala: horietan, Foru Komunitatean jasandako kalteak minimoak izan ziren mugakide diren Komunitateetakoekin konparatuz. Azken hauetan, gurean egindako mantenu- eta garbiketa-lanak bezalakorik ez zen burutu. Beraz, jarduketa-mota berberari eustea aurreikusten da, aurreko hainbat uholde-tan kalteturiko ertzak eta ibilguak leheneratzeko tratamendu batekin eta horren balorazioarekin osoturik.

4.- Datozen urteetako aurrekontuetan plan hori burutzeko zein aurreikuspen jarriko dira aurrekontuetan?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentu honek ibaietan egiten

dituen lanetatik eratorritako gastuak hainbat aurrekontu-kontusaili kargatzen zaizkio. 1998ko gastu-aurrekonturako kontusail horiei egoki diren kredituen bidezko dotazioa ematea aurreikusitako da, 1997ko Aurrekontuetakoaren antzeko zenbatekoarekin. Logikoa den bezala, kreditu horiek aldatuak izan daitezke Aurrekontuen parlamentu-izapiztatzean zehar.

5.- 1997. urteko uholdeek sortu dituzten arazo puntualei konponbidea emateko, zein jarduera burutu ditu Ingurugiro Departamentuak? Jarduera horiek zenbateko gastua ekarri dute, herriz herri zehaztuta?

Galdera honi lehenengo puntuari erantzutean partzialki ihardetsi zaio, Tafalla, Erriberri, Beire eta Pitillas herriei dagozkien oroitidazki balioztatueta aurreikusten diren obrak gaur egun tinko burutzen ari baitira. Oroitidazkietako aurrekontuak hauek ziren:

Tafalla:22.625.860 pezeta.
Erriberri:18.100.689 pezeta.
Beire:.....10.130.350 pezeta.
Pitillas:.....13.428.012 pezeta.
Guztira:.....64.284.911 pezeta.

Halaber, Urederraren arroan dagoen Larrioneko herrigunean uholdeak ekiditeko obrak kontuan hartu dira, 7.707.067 pezetako aurrekontuarekin.

Jarduketa hauek honako aurrekontu-kontusail honen kargura burutzen ari dira: "Naturguneak babesteko eta ibaiak leheneratzeko hitzarmena", 1997ko aurrekontukoa.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko urriaren 9a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Sai errearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak sai errearen inguruko ikerlan bat abian jartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Miguel Angel Larráyoz Lezáun, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak sai errearen jokararen aldaketei buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Abian jarri al da Ingurugiro Kontseilariak iragarritako plan handinahi hura, alegia, animalia biziei eginiko erasoengatiko salaketak ikusita saien jokaeretan gertatutako balizko aldakera horiek azterteko plana?

Bai, antzemandako kasu guztien albatari-txostenak eta analisi anatomopatologikoak egin dira, zehaztasunez ezagutzeko zein diren saien populazioaren eta abereen arteko elkarrengarritasunak.

Saiek aztertzeko eragindako kalteen ordainak arautzen dituen ekainaren 2ko 607/1997 Foru Agindua onetsi da.

Gainera, uztailaren 2an, Zuzendaritza Nagusi honek Bernako Hitzarmeneko Idazkaritza Nagusira (Europako Kontseilua), Ingurugiro Ministerioko Ingurugiroko Idazkaritza Nagusiko Kontseilari zuzendari nagusiarengana eta Europako Batzordeko XI. Zuzendaritzara jo zuen, Nafarroan saiekin eta aztertzeko gertatzen ari zen egoera azaltzeko eta aurreikusitako jardura planari ekiteko behar ziren jarraibide, gomendio eta laguntza finantzarioa eskuratzeko.

Europako Batzordearen erantzuna jardura jakin bakar bat ere ez egitearen aldekoa zen, arazoari konponbide bat emateko egokienak izan zitezkeen neurriak ezartzeko nazio mailako agintari eskudunekin koordinatu aurretik. Behin proposamen horiek guztiak eginda, arazoa Europa mai-

lan, batez ere Ornis Komitean, aurkezteko moduan egonen ginateke.

Ingurugiroko Ministerioak ale batzuk harrapatu eta markatzeko aholkua eman digu, eta itxaronaldi bat zabaldu du arazoa argituko duen informazio gehiago eskura dagoenean egoera aztertzeke.

2. Harremanik izan al du batere Ingurugiro Departamentuak proiektua egin duten eta proiektu hori burutu behar zuten CSICeko biologoekin?

Ingurugiro Departamentuak zenbait kontatu izan ditu CSICekin. Dena den, eta Ingurugiro Ministerioaren jarraibideei jarraituz, protokoloaren hasiera ez da gauzatu, aldi aski zabal batean bildutako datuek arazoaren norainokoa eta ezaugarri zehatzak argitzeko bidea ematen duten arte.

3. Jardueraren bat burutu al da gai honen inguruan? nork egin du?, zein aurrekontu jarri da horretarako?

Abenduaren bukaerarako beren lehen ondorioak aurkeztuak izan beharko dituzten ondoko ikerlanak jarri dira abian:

- Nafarroako sai arrearen (*Gyps fulvus*) kolonietako bilakaera, ekoizgarritasuneko aldakuntzak, ugalketaren fenologia eta populazio mugikorraren estimazioa aztertzeke ikerlana. UGARRA Ikerlan Biologikoen Taldeari eman zitzaion lan hori egiteko ardura, 1.989.400 pezetatan.

- Nafarroako sai arreak markatu eta jarraitzea, eta haien etzalekuen garrantzia baloratzea. Lan hori burutzeko Lankidetzaren Hitzarmen bat sinatu zen Instituto Científico y Tecnológico de Navarra,

S.A.rekin (Nafarroako Unibertsitatea), bi milioi pezetatan.

Ekainaren bigarren hamabostaldian 13 sai arrearen lehenbizko harrapaketa esperimentalala egin zen, aukeratutako harrapaketa eta markaketa sistemen eraginkortasuna egiaztatzeke. Jarduketa horretan parte hartu zuten Fundación para la Conservación del Quebrantahuesos izenekoak, Natura Zaintzeko Zerbitzuko zelaiko langileek eta teknikariek eta Nafarroako Unibertsitateko Zoologia eta Ekologia Saileko kide batek. Markaketa egitearekin batera, harrapatutako aleen ikerketa zitogenetiko eta toxikologikoa ere egin zen. Lan hori Madrilgo Laboratorio Forense de Vida Silvestre izeneko erakundeak egin zuen. Lan horien guztizko gastua 919.121 pezetakoa izan zen.

Azken urte hauetan egindako programetan bezala, uztailaren 1ean GRIVERen eskaera bat jaso da Nafarroako saiak eskatzeko Verdongo Parke Naturalean sai arrea birsartzeko proiekturako, Frantziako Ingurugiro Ministerioak enkargatuta. Eskatutako aleak 65 dira guztira. Ilundaingo Basa Fauna Berreskuratzeko Zentroan entregatuko zaizkie hurrengo egunetan.

Ingurugiro Ministerioko Natura Zaintzeko Zuzendaritza Nagusiarekin elkarlanean, hurrengo egunetan ehun bat ale harrapatuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 9an

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Ehizaren antolamendurako planen izapidatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak ehizaren antolamendurako planen izapidatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 15a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentariak Sarria NA-10.045 ehiza-barrutia eta bere Ehiza Antolamendurako Planaren onesteko espedientea direla-eta idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Ehiza Antolamendurako Plana hiru eguneko epean onetsi zaien Nafarroako ehiza-barrutiak; hurrengoak zehaztu:

- Ehiza-barrutiaren izena.
- Aurkezpen eguna eta erregistroko sarreraren kopia.
- Onespenaren eguna eta erregistroko irteeraren kopia.

Ez dago Nafarroan hiru eguneko epean onetsi den Ehiza Antolamendurako Planik (EAP), halakotzat hartzen bada lehenbiziko proposmena sartu zenetik behin betiko onespena ematen den arteko prozesua.

Maiz gertatzen da, ordea, epe labur batean (hamabost egunetik hilabetera bitartekoa) onestea izapidaketaren azken fasea, alegia, azken dokumentazioa Departamentuan sartzen denetik EAParen behin betiko onespena ematen den artekoa.

Horrela bada, eskuartean dugun kasuan, Sarriako EAPa onesteko, 1992ko abuztutik 1997ko maiatzera bitarteko epea behar izan da. Beste kontu bat da izapidaketaren azken fasea hiru egunetan erabakia izatea. Gauza bera (azken

fasea egun gutxi batzuetan –baita bi egunetan ere– erabakitzea) gertatu da, esate baterako, Ibiltzietako ehiza-barrutiaren (NA-10.484) kasuan. Plan horren azken zuzenketa 1995eko abuztuaren 22an aurkeztu zen eta onespena 1995eko abuztuaren 24an eman zitzaion.

Ondotik erantsi da EAParen azken fasea hila-bete baino gutxiagoan onetsi zaien ehiza-barrutien zerrenda. Halaber, hasierako EAPa, azken zuzenketa erregistroan aurkeztearen eskabideak eta onesteko erabakiak ere erantsi dira.

Hilabete baino gutxiagoan EAPa onetsi zaien ehiza-barrutien zerrenda.

| Matrikula | Izena | Erregistroko sarrera | Azken zuzenketa | Onespena |
|-----------|------------|----------------------|-----------------|----------|
| 10. 484 | Ibiltzeta | 92-08-18 | 95-08-22 | 95-08-24 |
| 10. 007 | Txangoa | 96-10-07 | 97-06-24 | 97-07-03 |
| 10. 459 | Mendavia | 94-12-31 | 95-10-25 | 95-11-03 |
| 10. 508 | Beriain | 95-07-18 | 97-05-27 | 97-06-09 |
| 10. 369 | Monteagudo | 95-12-01 | 97-06-20 | 97-07-03 |
| 10. 432 | Uztarrotz | 95-09-07 | 96-02-05 | 96-10-23 |
| 10.191 | San Adrián | 96-05-23 | 97-04-22 | 97-05-12 |
| 10.088 | Unzue | 96-04-30 | 97-05-05 | 97-05-28 |
| 10.443 | Baraibar | 94-12-27 | 95-08-29 | 95-09-21 |
| 10. 409 | Agoitz | 94-08-16 | 95-06-27 | 95-07-20 |
| 10. 145 | Lodosa | 96-01-31 | 96-09-27 | 23-10-96 |
| 10.081 | Indurain | 94-09-08 | 95-06-20 | 95-07-21 |

2. Ehiza Antolamendurako Planik onetsi baldin bada, onespenerako Foru Aginduak jasotako akats, gero zuzentzekoak, eta guzti. Kopia erantsi, halakorik balitz.

1994tik aurrera onesteko ebazpenean aldaketak izan dituzten barrutiak aipatzen dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 10ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

(Eransten diren dokumentuak Foru Parlamentarien esku daude Ganbararen bulego nagusian).

Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Javier Arteaga Olleta Foru Parlamentari jaunak Nafarroako autobideetan BEZa jaisteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak, Javier Arteaga Foru Parlamentari jaunak autobideetako BEZa dela eta egindako galderaren inguruan, ondokoa adierazten du:

Nafarroako Gobernuak, 1997ko irailaren 5ean, ibilgailu batzuen bidesarietako BEZaren tipoa

%16tik %7ra jaistea erabaki zuen. Merkatze hori irailaren 6an hasi zen aplikatzen Nafarroako Autobidean.

Nafarroako Gobernuak ezagutzen du Europako Batasuneko Seigarren Zuzentaraua, baina Hitzarmen Ekonomikoaren 27. artikularen arabera, "Nafarroak Estatu mailan uneoro indarra duten oinarriko printzipio, arau sustantibo eta formazio berberak aplikatuko ditu...". Hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion guztian, Estatu-ko arau berdinak aplikatu behar ditugula; horregatik hartu zen arestian aipatu den erabakia.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean 1997ko urriaren 13an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria, José María Aracama Yoldi

Harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea "Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun" deklaratzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak harresien multzoa, Gotorlekua eta San Cristóbal Fortea "Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun" deklaratzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Gregorio Martínez Ezcaray Foru Parlamentari jaunak Gotorlekuaren harresien multzoa eta San Cristóbal Fortea "Gizon-emakume guztien Ondareko Ondasun" deklaratzeari buruz egin duen gal-

derari erantzuteko, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Legearen ikuspuntutik, Nafarroako Gobernuak ez du inongo konpromisorik hartzen; Unesco-ren deklarazioak ez du ezertan ere lotzen Gobernuak gizon-emakume guztien ondare deklaratu den ondasunarekin. Baina, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak ezartzen duen bezala, interes kulturalerako deklarazioak bai titularrak –alegia, Iruñeko Udala– bai Nafarroako Gobernuak ukitzen ditu, erantzukizun subsidiarioari dago-kionean.

2. Espainiako Ondare Historikoaren 16/1985 legea da aplikatzen ari dena. Lege horretan argi ezartzen da interes kulturalerako deklaratu den ondasunaren titularrak dela ondasun horren mantentze eta kontserbazioa bere bizkar hartu behar duena.

Dena den, Iruñeko Udalak interes kulturalerako ondasunak mantendu eta kontserbatzeko eraba-

teko obligazioa duen arren, Foru Administrazioa jo dezake bere zeregin hori aurrera eramateko behar dituen laguntza ekonomiko eta teknikoaren bila. Era berean, izaera publiko zein pribatuko beste erakunde batzuetara ere jo ahal izanen du finantziazioa lortzeko.

3. Deklarazio horretatik ez dira sortzen beste eginbeharrik ondasunaren jabeagoa duten titularrak dituztenez gainera, indarra duten lege espainiarren arabera, besteren artean, Espainiako Ondare Historikoaren legearen arabera. Berez horrelakorik daukaten monumentu eta hiriei izugarriko ospea ematen dion deklarazioa da eta turismoa eta bisitariak erakartzen ditu eta gizon-ema-kumeen ondareztat jotakoak dituzten hiriek onura polita ateratzen dute.

4. Espainiako Ondare Historikoaren Legeak Iruñeko Udala behartzen du, higiezinaren titularrak den aldetik, deklaratuak monumentuak mantendu eta kontserbatzea. Deklarazio hori dute Iruñeko harresiek, 1939ko irailaren 25eko Ministerio Aginduaz, eta Iruñeko gotorlekuak 1973ko otsailaren 8ko Dekretuaz.

Era berean, Espainiako Ondare Historikoari buruzko Legeak Iruñeko multzo historikoari buruz esaten duena ere aintzakotzat hartu beharko du Udalak, izan ere hori ere Inteses Kulturaleko Ondasun deklaratu baitzen 1968ko apirilaren 6ko Dekretu batez.

Horrenbestez, Iruñeko Udala titularra den ondasunen erantzulea da, eta haren eginbeharra da haiek mantendu eta kontserbatzea, behar den guztia eginez ondasun horiek hondatu ez daitezen eta jendeak gozatua ahal izan ditzan. Horrek esan nahi du, noski, Udalaren aurrekontuetan kontusail

bat egon behar duela higiezinaren mantenimendurako.

Balizko lankidetzari dagokionez, Ondare Historikoaren Legeak sustapen lerro bat aurreikusi zuen beste erakunde batzuen laguntza ekonomikoari buruz. Nafarroaren kasuan, hori Vianako Printzea Erakundearen bidez izapidatzen da, kasuan kasuko dirulaguntza lerroen bidez.

Vianako Printzea Erakundearekin egon daitekeen lankidetzak gora-behera, Iruñeko Udalak beste finantziario lerro batzuetara ere jo dezake, esate baterako Estatuak afera hauetarako duen "kulturarako % 1"era, baldin eta Estatuak Administrazioak ezarri dituen lerroekin bat badator. Era berean Europako programetara ere jo daiteke, bi aldeak ados baldin badaude.

Finantzaketari dagokionez, ondasun bat Gizon-ema-kume guztion Ondare deklaratuak garrantzi handieneko gertakizuna da, izan ere turista eta bisitarien etorri handiagoa erakartzen baitu zuzenean. Hori akuilu nabarmena da enpresa pribatu eta bankuek inbertitu dezaten deklaratuak multzoetan, erabat edo neurri batean, administrazioekin sinatutako hitzarmenen bidez. Espero daitekeenez, momentuz ezin da datu zehatzik eman afera horri buruz, baina argi eta garbi dago deklarazio horrekin errazago gertatuko dela finantziario iturri hartara jotzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 3an

Hezkuntza eta Kultura Kontseilaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Aldáriz jauna “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren kudeatzaile izendatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentari jaunak Aldáriz jauna “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren kudeatzaile izendatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Juan Cruz Alli Aranguren “Nafarroako Demokraten Elkargunea” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentari jaunak “Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.” enpresako zuzendari kudeatzailearen izendapenari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Zein izan dira Ingurugiro Departamentuak izendapen hori egiteko izan dituen arrazoiak?

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak intereseko iritzi dio “Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.” sozietate publikoaren zuzendari kudeatzailea izendatzeari, beste arrazoi batzuen artean, aipatu merkataritza sozietatearen eraketa onesten zuen ekainaren 3ko 235/1996 Foru Dekretua garatzeko eta 1997ko Nafarroako Aurrekontuen Foru Legeak biltzen zuen Parlamentuaren Agindua betetzeko.

Dena den, izendapen hori ez da Departamentuaren zeregina, bai ordea sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluarena, Sozietatearen Estatutuen 17. artikulua biltzen duen bezala. Honela dio, hitzez hitz:

“Administrazio Kontseiluak hautatu eta kargutik kenduko du zuzendari kudeatzailea. Izendatua, horretarako bereziki gai dena izanen da eta Administrazio Kontseiluak bidezkotzat jo dezakeen kontratu eta ordainsaria izanen ditu”.

2.- Zein da kudeatzaile berriaren curriculum zehaztua?

Izena: Jesús Aldariz Martín.

Santanderren jaioa, 1966ko urriaren 4an. Bide, Ubide eta Portu ingeniaria. Ikasketak Santanderko E.T.S. I.C.C. y P. izenekoan egin zituen; 1990eko ekainean bukatu zituen. Urte hartan bertan Bilboko “IDOM” ingeniari-tza-zerbitzuen enpresan hasi zuen bere lanbide jardura. Enpresa horretan jardun du gaur arte, alegia, “Navarra de Medio Ambiente Industrial, S.A.” enpresara aldatu den arte.

Urte hauetan egindako lana ingeniari-tza-zibila-ren, eraikuntza-ren eta ingurugiroaren alorretan biltzen dira, batez ere, bai proiektuak burutu eta koordinatzearekin lotutako aspektuetan, bai obretako laguntza teknikoan eta zuzendaritzan.

Era aktiboan lanean aritu den jardura arlo ezberdinen artean, “egiturak eta geoteknia”ri buruzkoak azpimarratu behar dira. Egituren tipologia ezberdinetako dimentsionatze-lanetan eta haitz eta lurzoruetako ezponden ezegonkortasunak zuzendu eta haiei eusteko konponbide ezberdinak emateko lanetan aritu da; era berean, esku hartu du “ingurugiroa”, HCH (hexaclorociclohexano) bezalako elementuekin kontaminatutako lurra biltzeko segurtasun zeldak egiteko definizioan eta laguntza teknikoan lanetan.

Espezializazio ikastaro ezberdinak egin ditu, ondokoak besteren artean: “Curso de Ingeniería Ambiental”, “Curso de Auditores de Calidad” eta “La dimensión Ambiental en la Dirección estratégica de la empresa”.

3. Zer nolako esperientzia kreditatu du kudeatzaile berriak Ingurugiroaren alorrean, eta, zehazki, hondakin berezien kudeaketa eta tratamenduan alorrean?

Curriculumean zehaztutakoa.

4. Zein izan da hura kontratatze erabili den administrazio-prozedura?

5. Izan al zen enplegu eskaintza publikorik?, izan al zen izangaien hautapenik nahiz merezimenduen baremorik? Hala bada, hautapena epaitu zuen Epaimahaiaren aktaren kopia eta izangaien curriculumen kopia eskatzen dira.

Gorago aipatu den bezala, ekainaren 3ko 235/1996 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Estatutuen 17. artikuluan ezarri zen Administrazio

Kontseiluak erabakiko zuela zuzendari kudeatzailearen izendatzea eta kargutik kentzea.

Prozedura hori izan da Gobernuaren sozietate publikoetako zuzendari kudeatzaileak kontratatze-ko ohiko prozedura.

Hori guztia dela eta, Administrazio Kontseilua izan da lan hori egiteko ardura hartu duena, une honetara arte egindako bi bilkuretako aktetan zehazten den bezala: eraketa bilkurako 4. puntuan -eskariak eta galderak- (97-06-30), eta bigarrena (97-08-14). Azken honetako gai zerrendaren

puntu bakarraren ondorioz -zuzendari kudeatzailearen izendatzea, eta ahalmenak eskuordetzea, halakorik bada-, hiri honetako Javier Dean Rubio notarioaren 97-08-19ko eskrituran (685. protokolo zenbakia) bildutako erabakiak hartu ziren.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduen 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 10ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria, Yolanda Barcina Angulo

“Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoko gerentea izendatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoko gerentea izendatze-ari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 22ko 62. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco “Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra” Parlamentari Taldeari atxikitako Foru Parlamentari jaunak “Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoko zuzendari kudeatzailearen izendapenari buruz idatziz erantzun diezaioten egindako galderaren inguruan, Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

1. Hautapen prozesurik izan ote den horretarako, eta hala bada, nolakoa izan den.

“Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren zuzendari kudeatzailearen izendapena, 235/1996 Foru Dekretuaz onetsi ziren Sozietatearen Estatutuen 17. artikuluen arabera egin da. Hitzez hitz honela dio:

“Administrazio Kontseiluak hautatu eta kargutik kenduko du zuzendari kudeatzailea. Izendatua, horretarako bereziki gai dena izanen da eta Administrazio Kontseiluak bidezkotzat jo dezakeen kontratu eta ordainsaria izanen ditu”.

“Navarra de Medio Ambiente Industrial” sozietate publikoaren zuzendari kudeatzailea izendatzeko erabili da Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren menpeko beste bi sozietate publikoen gaurko zuzendari nagusiak izendatzeko erabili zen bide bera: Viviendas de Navarra, S.A. ren kasuan, Administrazio Kontseiluak 1989ko martxoaren 5ean izendatu zuen bere zuzendari kudeatzailea; Gestión Ambiental, Viveros y Repoblaciones de Navarra, S.A. ren kasuan, berriz, zuzendari kudeatzailearen izendapena 1989ko azaroaren 9an egin zen.

2. Zein izan diren Nafarroaz kanpoko pertsona hori kontratatze-ko arrazoiak eta zein bide erabili den azkenean kontratatu den pertsonarekin harremanetan jartzeko.

Jesús Aldariz Martín jauna izendatzeko arrazoi lanpostu horretarako langilerik egokiena aurkitzea izan zen.

XXI. mendearen mugetan, telekomunikazioen eta “mundua auzo den” garaian, egokiena dela uste den langile bat ez kontratatzea gure komunitateko muga geografikoez kanpo jaio delako ikuspegi atzerakoia eta Nafarroaren modernitate eta aurrerakuntzaren tradizioarekin bat ez datorrena izanen litzateke.

3. Uste al du Gobernuak ez zegoela pertsona egokirik Ingurugiro Departamentuaren barrenean, edo bestelakoak izan ote dira kontratazio hori erabakitzeko arrazoiak? Hala bada, zein arrazoi dira horiek?

Ikus lehenbiziko puntua.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 10ean

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

Erreserba nazionaleko esne-kuota banatzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak erreserba nazionaleko esne-kuota banatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Martín Landa Marco "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeko Foru Parlamentariak Erreserba Nazionaleko esne-kuota banatzeari buruz egindako galderari erantzuteko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak ondoko erantzuna ematen du:

Otsailaren 2ko 154/1996 Foru Dekretuaren bidez estatu mailako plan bat egin zen esne-pro-

dukzioari borondatez behin betiko uzteari buruz. Komunitate autonomoek plan horren finantzaketan esku har zezaketen.

Gaur, Foru Agindu hartan ezarritakoa aplikatzearen emaitza eta balizko onuradunen eta beren kuotaren zerrenda Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari bidali zaio, izan ere bera delako behin betiko ebazpena emateko organo ahal-duna.

Kuotaren onuradun izateko proposatu diren abeltzainak 71 dira eta 201.032 kgtik 253.708 kg bitarteko batezbesteko kuota izatera pasatuko liriteke.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Mahasti-hektareak izendapen ezberdinen artean banatzeko erabili diren irizpideei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak mahasti-hektareak izendapen ezberdinen artean banatzeko erabili diren irizpideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 16a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeari atxikitako Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak, idatziz erantzuteko galdera egin du, mahasti hektareak izendapen ezberdinen artean banatzeari buruz. Nekaza-

ritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariak hauxe darantz:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko apirilaren 7ko erabakiz, tramitera onartu zuen Andrés Basterra Layana Foru Parlamentari jaunak egindako galdera, orain egindakoarekin bat datoarena.

Hori dela-eta, erantzun haren fotokopia bidaltzen dizut eta Foru Parlamentuan herriaren ordezkari izateagatik zor zaizun errespetuarekin iradokitzen dizut zure Parlamentari Taldeko kideen artean koordinazio handiagoa izan dezazuela, eraginkortasunaren mesedetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedatua betez

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria: Ignacio Martínez Alfaro

Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkariak duten erakundeei ordaintzeko aurrekontu-kontusailaren banaketari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkariak duten erakundeei ordaintzeko aurrekontu-kontusailaren banaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkariak duten erakundeei egindako ordaintzari buruz idatziz erantzun diezaioten egin duen gal-

derari erantzuteko, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak ondokoa adierazten du:

1. Nafarroako Aurrekontu Orokorretan ez dago Ekonomi eta Gizarte Kontseiluan ordezkariak duten erakundeei diru-ordaintzak egiteko kontusailik.

Nuin jaunak aipatu nahi zuen dirusaila, agian, Ekonomi eta Ogasun Departamentuarena da eta "Transferentziak EGKari, funtzionatu dezan" du izena. Erakunde horren lanek sor ditzaketan gastuak ordaintzeko helburua du.

UAGN eta EHNE sindikatuek dirulaguntzak jasotzen dituzte EGKan parte hartzeagatik. 1997ko Aurrekontu Orokorretan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, lehenbiziko aldiz, milioi bat pezetako kontusail bat jarri zuen "EGKan dauden nekazaritza erakundeei parte hartzeagatik emandako diru-ordaintza".

Diru hori "Nekazaritza sindikatueterako dirulaguntzak" izenarekin Departamentu berak daukan hogei milioiko kontusailekoari erantsi behar zaio.

1996 eta 1997. urteetarako aurrekontu lerro bat egon da Nafarroako Aurrekontu Nagusietan, Lehendakaritza Departamentuan eta Industria, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuan, EGKn dauden langile-sindikatu, gizarte-ekonomia-ko elkarte eta enpresario-antolamenduei ordaina emateko EGKn parte hartzeagatik.

Azaldutakoaren arabera egiazta daiteke Ekonomi eta Gizarte Kontseiluak ez duela dirulaguntzarik ematen: orain arte bi departamentu horiek eman dizkiete dirulaguntzak beren eskumenekin loturiko entitateei, nahiz eta erreferentzi bezala EGKn parte hartzea erabili.

2.- Nafarroako Ekonomi eta Gizarte Kontseilua arautzen duen apirilaren 4ko 8/1995 Foru Legeak ez du deus ere xedatzen beren kideentzako ordainketei buruz.

Aurreko erantzunean zehaztutako erakundeei emandako dirulaguntzen oinarrian Aurrekontu Nagusien Legeak daude.

3.- Nafarroako Gobernua EGKa bezalako erakundeen kostuak ahal den guztian kontrolatzearen alde dago. Zuzen eta nahikoa irizten dio Lan Departamentuko Lan Zerbitzuak ematen dien laguntza tekniko eta administratiboari. Entitate berak eta askotan EGKn diren pertsona berak partaide dituzten sektorekako kontseilu eta kontseilu berezi asko daude (nekazaritza, hezkuntza, etxebizitza, ingurugiro, prestakuntza alorretan eta abar). Entitate edo pertsona horiek, gero, Kontseiluan eztabaidatu behar diren proiektu beren berri eman behar diote Kontseiluari eta, ondorioz, jardueren bikoizketa agerikoa sortzen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 13an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José M^a Aracama Yoldi

Emakumeari Arreta egiteko Planari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Emakumeari Arreta egiteko Planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 13ko 66. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeari atxikiriko Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak Emakumeari Arreta egiteko Planari buruzko datuak zabaltzeari buruz egindako galdera dela-eta, izenpetzen duen Osasun Kontseilariak honako erantzun hau igortzen dizu:

Nafarroako Aldizkari Ofizialaren urriaren 8ko 121. alean argitaratu zen irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuaren bidez, Tokoginekologia eta

Famili Plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezarri zen.

Noiz aukeratu ahal izango da ginekologoa?

Ikusirik Dekretuak eskatzen duen prozesua, Nafarroako Osasun Zerbitzuak uste du progresiboki ezarriko dela ginekologoek aukeratzea emakumearentzako arreta zentroetan, eta indarra izango duela Dekretua argitaratu zenetik 3 eta 6 hilabete bitarteko epean.

Nola izango da emakumeek ginekologoa aukeratzeko prozesua?

Aurreikusitako bezala, emakumeek modua izango dute aukeratzeko beren Osasun Arloko emakumeentzako arreta zentroi atxikiriko obstetrizia eta ginekologiako espezialista guztien artean, eta ez soilik ohiko arreta zentroko ekipokoen artean.

Anbulategietan aurreikus daitezkeen pertsonal mugimenduak.

Aldaketa batzuk gertatuko dira obstetrizia, ginekologia eta emagina espezialisten boronda-

tezko eskaeren ondorioz. Borondatez eta kontsentsuz egiten ez bada, atxikipena egingo da antzinatasunaren eta kontratazio finko eta aldi baterakoaren alderantzizko ordenaren arabera.

Zer anbulategitan izango da ginekologia zerbitzua? Zerrenda.

Erantzun honi erantsi zaion irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretuaren 1. eranskinean agertzen dira.

Solchagakoari eusten ez bazaio, Departamentuaren arazoak aldaketa egiteko.

Galdera ez da ongi ulertzen. General Solchaga anbulategian emakumeari laguntzeko unitate bat edo bi mantentzea aurreikusi da. Bertan lanean dauden kupoko espezialista guztiek atxiki ahal izango zaizkie unitate horiei nahi badute, beraz, ez dugu uste galderan antzeman daitezkeen aldakuntza edo lekualdatzeak gertatuko direnik.

Hori guztia jakinarazten dizut Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikuluan eta ondokoe-tan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 1997ko urriaren 9an

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

1. eranskina. EMAKUMEARI ARRETA EGITEKO ZENTROAK

| IZENA | TOKIA | OINARRIZKO ESK. | PLANTILA | | | Hezk. |
|-------------------------|--|---|----------|------------------|---------|-------|
| | | | Best. | Gine. Emagina | OLT o . | |
| Burlata | Osasun Zentroa, Burlada | Burlata Atarrabia Uharte Agoitz Auritz Ultzama | Admin. 1 | 2 | 2 | 1 |
| Elizondoko subunitatea | Osasun Zentroa, Elizondo | Elizondo Lesaka Doneztebe | Admin. 1 | 1 | 1 | 1 |
| Milagrosa-Azpilagaña | Osasun Zentroa, Milagrosa Osasun Zentroa, Azpilagaña (behin-behingo, Gral. Solch. anbulategia) | Milagrosa Azpilagaña Noain | Admin. 1 | 2 | 2 | 1 |
| Zangozako subunitatea | Osasun Zentroa, Zangoza | Zangoza Izaba Salazar | | 1 | 1 | |
| Zabalgunea-Alde Zaharra | Osasun Zentroa, Zabalgunea Osasun Zentroa, A. Zaharra (behin-behingo, Gral. Solch. anbulategia) | II. Zabalgunea Alde Zaharra Mendillorri | Admin. 1 | 2 | 3 | 1 |

| IZENA | TOKIA | OINARRIZKO ESK. | PLANTILA | | | |
|-----------------------------------|--|---|----------|------------------|---------|-------|
| | | | Best. | Gine. Emagina | OLT o . | Hezk. |
| Etxarri-Aranatzko subun. | Osasun Zentroa, Etxarri-Aranatz | Etxarri-Aranatz Iruztun Altsasu Leitza | Admin. 1 | 1 | 1 | 1 |
| Txantrea | Osasun Zentroa, Txantrea | Txantrea Errrotxapea Sanduzelai | Admin. 1 | 2 | 2 | 1 |
| Iturrama-Donibane | Osasun Zentroa, Donibane Donibane | Iturrama | Admin. 1 | 3 | 3 | 1 |
| Ermitagaña-Barañain | Osasun Zentroa, Ermitagaña (behin-behingoaz Nafarroako Ospitalean) | Ermitagaña Barañain Berriozar Zizur Gares Orkoien | Admin. 1 | 3 | 3 | 1 |
| Tafalla | Osasun Zentroa, Tafalla | Tafalla Artaxona Zarrakaztelu Erriberri Azkoien | Admin. 1 | 2 | 2 | 1 |
| Lizarra | Osasun Zentroa, Lizarra | Lizarra Allo Antzin-Ameskoa Urantzia Viana Villatuerta | Admin. 1 | 1 | 2 | 1 |
| Lodosako subunitatea S. Adrián | Osasun Zentroa, Lodoso o Osasun Zentroa, San Adrián | Lodoso S. Adrián | | O.Z. 1 | O.Z. 1 | |
| Tutera | Tuterako ambulategia Tudela Mendebalde | Tudela Ekialdea | O.Z. 1 | 1 | 1 | |
| Tutera, ospitalea | Reina Sofía Ospitalea | Buñuel Cascante Cintruénigo Corella Valtierra | Admin. 1 | 1 | 3 | 1 |

O.Z.: Barrutiko Ospitaleko Obstetria eta Ginekologia Zerbitzua
Admin.: Administrari Laguntzailea

Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legeak ezarritako udal planei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko irailaren 29ko 63. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeko Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak Nafarroako Udaletako Hiri Planei buruz egin dituen galderen inguruan, Ingu-rugiro Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak ondoko erantzuna bidaltzen dizu:

Egindako galdera ezberdinei erantzuteko, ondotik erantsi dut galderak bereizten dituen ego-eretan dauden udalen zerrendak biltzen dituen taula bat

| UDALAK, > 500 PLANEAMENDURIK GABE | UDAL PLANA DUTEN UDALAK (10/1994 Foru Legea) | PLANEAMENDUA IZANIK, 10/1994 FORU LEGEAREN ARABERA BESTE BAT EGITEN ARI DIREN UDALAK | PLANEAMENDUA BEHIN BETIKOZ ONARTU DUTEN UDALAK | PLANEAMENDURIK GABEKO UDALAK |
|---|--|--|---|------------------------------------|
| ABARTZUZA | ABAIGAR * | ALTSASU | ABAIGAR | ABARTZUZA |
| ALLIN | ANTZIN | ANTSOAIN | ABLITAS | ABAURREAGAINA |
| ALLO | ANTSOAIN | ARBIZU | ADIOTZ | ABAURREPEA |
| AMESKOABARREN | AÑORBE | ARTAXONA | AIBAR | ABERIN |
| ARRONITZ | ARANGUREN | BAZTAN | ANTZIN | AGUILAR CODES |
| AZAGRA | ARAKIL | BERIAIN | ANDOSILLA | ALLIN |
| DEIKAZTELU | URANTZIA | BERTIZARANA | ANTSOAIN | ALLO |
| EGUES | ARESO | CINTRUENIGO | AÑORBE | AMESKOABARREN |
| ELORTZ | BARGOTA * | CORELLA | AGOITZ | ANUE |
| ERRO | BASABURUA * | CORTES | ARAITZ | ARANARATXE |
| GALAR | BERRIOBEITI | DONEZTEBE | ARANTZA | ARANO |
| LARRAGA | BIURRUN OLKOTZ | EGUES | ARAKIL | ARAS |
| LARRAUN | CADREITA * | ELORTZ | ARBIZU | ARTZI |
| OLTZA | CARCAR | FONTELLAS | URANTZIA | ARELLANO |
| S. MARTIN UNX | CASEDA * | FUSTIÑANA | ARESO | ARIA |
| TIEBAS-MURUARTE. | ZIZUR | GALAR | ARGUEDAS | ARMAÑANZAS |
| DEIERRI | ETXAURI | UHARTE | ARIBE | ARRONITZ |
| | ERGOIENA * | IRURTZUN | ARRUAZU | ARTAZU |
| | LIZARRA | LESAKA | ARTAXONA | ATETZ |
| | GALIPENTZU | MURCHANTE | AURITZ | AZAGRA |
| | IMOTZ * | ODIETA | AIEGI | AZUELO |
| | IZABA * | OLAZTI | BAKAIKU | BARBARIN |
| | ITZA | OLTZA | BARAÑAIN | BARILLAS |
| | ITZAGONDOA | IRUÑA | BARASOAIN | BEIRE |
| | LEKUNBERRI | GARES | BARGOTA | BELASKOAIN |
| | LODOSA | RIBAFORADA | BASABURUA | BETELU |
| | MARCILLA | ZANGOZA | BAZTAN | BURGI |
| | MENDAVIA | VALTIERRA | BERA | BUSTO EL |

| UDALAK, > 500 PLANEAMENDURIK GABE | UDAL PLANA DUTEN UDALAK (10/1994 Foru Legea) | PLANEAMENDUA IZANIK, 10/1994 FORU LEGEAREN ARABERA BESTE BAT EGITEN ARI DIREN UDALAK | PLANEAMENDUA BEHIN BETIKOZ ONARTU DUTEN UDALAK | PLANEAMENDURIK GABEKO UDALAK |
|---|--|--|---|------------------------------------|
| | MENDIGORRIA | | BERBINTZANA | CABREDO |
| | MURIETA * | | BERIAIN | GAZTELUBERRI |
| | MURILLO CUENDE | | BERRIOBEITI | ZIRITZA |
| | OLAIBAR | | BERRIOZAR | DESOIO |
| | ORBAITZETA | | BERTIZARANA | DEIKAZTELU |
| | OTEITZA | | BIURRUN OLKOTZ | DONAMARIA |
| | PITILLAS * | | BUÑUEL | ETXARRI |
| | SAN ADRIAN | | CABANILLAS | EGUES |
| | SUNBILLA | | CADREITA | ELORTZ |
| | ULTZAMA | | CAPARROSO | ERATSUN |
| | URRAUL BEITI * | | CARCAR | ERRO |
| | BIDAURRETA | | CARCASTILLO | ESPARTZA |
| | ATARRABIA | | CASCANTE | ESPRONCEDA |
| | ZIZUR NAGUSIA | | CASEDA | ETAIU |
| | | | CASTEJON | EULATE |
| | | | CINTRUENIGO | EZKAROZE |
| | | | ZIRAUKI | EZKURRA |
| | | | ZIZUR | EZPOROGI |
| | | | CORELLA | GALAR |
| | | | CORTES | GALOZE |
| | | | DONEZTEBE | GARAOIA |
| | | | ETXALAR | GARDE |
| | | | ETXARRI ARANATZ | UXANABILLA |
| | | | ETXAURI | GOÑI |
| | | | ELGORRIAGA | GORZA |
| | | | ENERITZ | GESALATZ |
| | | | ERGOIENA | GIRGILLANO |
| | | | ESLAVA | HIRIBERRI |
| | | | LIZARRA | IBARGOITI |
| | | | ESTERIBAR | IGUZKITZA |
| | | | EZKABARTE | ITZALTZU |
| | | | FALCES | EIAURRIETA |
| | | | FITERO | XULAPAIN |
| | | | FONTELLAS | LABAIEN |
| | | | FUNES | LANA |
| | | | FUSTIÑANA | LANTZ |
| | | | GALIPENZU | LAPOBLACION |
| | | | GARINOAIN | LARRAGA |
| | | | GARRALDA | LARRAONA |
| | | | GOIZUETA | LARRAUN |
| | | | UHARTE | ELIZAGORRIA |
| | | | IGANTZI | LEATXE |
| | | | IMOTZ | LEGARDA |
| | | | IRAÑETA | LEGARIA |
| | | | IRURTZUN | LEOTZ |
| | | | IZABA | LEZAUN |
| | | | ITUREN | LIZOAIN |
| | | | ITURMENDI | LONGIDA |
| | | | ITZA | LUKIN |
| | | | ITZAGAONDOA | MAÑERU |
| | | | XABIER | MARAÑON |

| UDALAK, > 500 PLANEAMENDURIK GABE | UDAL PLANA DUTEN UDALAK (10/1994 Foru Legea) | PLANEAMENDUA IZANIK, 10/1994 FORU LEGEAREN ARABERA BESTE BAT EGITEN ARI DIREN UDALAK | PLANEAMENDUA BEHIN BETIKOZ ONARTU DUTEN UDALAK | PLANEAMENDURIK GABEKO UDALAK |
|---|--|--|---|------------------------------------|
| | | | LAKUNTZA | MENDAIZA |
| | | | LEKUNBERRI | METAUTEN |
| | | | LEITZA | MIRAFUENTES |
| | | | LERGA | MORENTIN |
| | | | LERIN | MUES |
| | | | LESAKA | NABASKOZE |
| | | | LIEDENA | NAZAR |
| | | | LODOSA | OKO |
| | | | IRUNBERRI | OITZ |
| | | | LUZAIDE | OLEXOA |
| | | | MARCILLA | OLORITZ |
| | | | MELIDA | OLTZA |
| | | | MENDAVIA | OLLO |
| | | | MENDIGORRIA | ORBARA |
| | | | MILAGRO | ORISOAIN |
| | | | MIRANDA DE ARGA | ORONTZE |
| | | | ELO | OROZ BETELU |
| | | | MONTEAGUDO | ORREAGA |
| | | | MURCHANTE | PETILLA |
| | | | MURIETA | PIEDRAMILLERA |
| | | | MURILLO EL CUENDE | ROMANZADO |
| | | | MURILLO EL FRUTO | ERRONKARI |
| | | | MURUZABAL | SADA ZANGOZA |
| | | | OBANOS | SALDIAS |
| | | | OTSAGABIA | JAITZ |
| | | | ODIETA | S.M. UNX |
| | | | OLAIBAR | SANSOL |
| | | | OLAZTI | SARRIES |
| | | | OLITE | SORLADA |
| | | | ORBAITZETA | TIEBAS-MURUARTE. |
| | | | ORKOIEN | TORRALBA RIO |
| | | | OTEITZA | TORRES DEL RIO |
| | | | IRUÑA | UNTZITI |
| | | | AZKOIEN | URDAZUBI |
| | | | PITILLAS | URRAUL GOITI |
| | | | GARES | URZAINKI |
| | | | PUIU | BIDANKOZE |
| | | | RIBAFORADA | V.MONJARDIN |
| | | | SAN ADRIAN | DEIERRI |
| | | | ZANGOZA | ZABALTZA |
| | | | SANTACARA | ZUGARRAMURDI |
| | | | SARTAGUDA | ZUÑIGA |
| | | | SESMA | |
| | | | SUNBILLA | |
| | | | TAFALLA | |
| | | | TIRAPU | |
| | | | TUTERA | |
| | | | TULEBRAS | |
| | | | UKAR | |
| | | | UHARTE ARAKIL | |
| | | | UXUE | |

| UDALAK, > 500 PLANEAMENDURIK GABE | UDAL PLANA DUTEN UDALAK (10/1994 Foru Legea) | PLANEAMENDUA IZANIK, 10/1994 FORU LEGEAREN ARABERA BESTE BAT EGITEN ARI DIREN UDALAK | PLANEAMENDUA BEHIN BETIKOZ ONARTU DUTEN UDALAK | PLANEAMENDURIK GABEKO UDALAK |
|---|--|--|--|------------------------------------|
| | | | ULTZAMA UNTZUE URDIAIN URRAUL BEITI URROTZ URROTZ UTERGA UZTARROZE VALTIERRA VIANA BIDAURRETA ALESBES VILLATUERTA ATARRABIA ESA ZUBIETA ZIORDIA ZIZUR NAGUSIA | |

* Hasierako onespena dute, 10/1994 Foru Legearen arabera.

Hiri planeamendurik ez duten 500 biztanle baino gehiagoko populazioko udalei dagokienez, udal horiek guztiak une honetan beren udal pla-

nak lantzen ari dira, ondoko zerrendan egiaztatu daitekeen bezala:

| Udalak > 500 biztanle. Planeamendurik gabe. | |
|---|--|
| Plangintzaren egoera une honetan | |
| Abartzuza: | U.P. lantzen (aurrerapena emanda). |
| Allin: | U.P. lantzen |
| Allo: | U.P. lantzen (hasierako onespena) |
| Ameskoabarren: | U.P. lantzen (hasierako onespena) |
| Arronitz: | U.P. lantzen (aurrerapena prestatzen) |
| Azagra: | A.S.ak lantzen |
| Deikaztelu: | A.S.ak behin betiko onetsiak (indarrean sartzeko, testu bateratua noiz helduko zain) |
| Egues: | U.P. lantzen (hasierako onespena, bigarren jendaurreko erakusketa) |
| Elortz: | U.P. lantzen (aurrerapena emanda dago) |
| Erro: | A.S.ak lantzen (hasierako onespenerria) |
| Galar: | U.P. lantzen |
| Larraga: | U.P. lantzen (behin-behineko onespenerriaren zain) |
| Larraun: | U.P. lantzen (behin-behineko onespena, behin betiko onespeneraren zain) |
| Oltza: | A.S.en (U.P.) berrikuspenaren erredakzioa esleitzekotan dira |
| San Martín Unx: | U.P. lantzen (hasierako onespena) |
| Tiebas-Muruarte: | U.P. lantzen (hasierako onespena) |
| Deierri: | U.P. lantzen |

Horietako batzuk, udal konposatuak izatean, badituzte indarreko planeamenduak bere Kontzeju batzuetan, eta baita Hiri Lurzorua Mugatzeko Proiektua.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Par-

lamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuarekin bat.

Iruñean, 1997ko urriaren 14a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, Ion Iñaki Erro Armendáriz Foru Parlamentari jaunak San Adriango Osasun Zentroari atxiki zaion Andosillako Medikuntza Kontsultategiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 13ko 66. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Andosillako biztanleei Oinarrizko Laguntzako aurretiko zita zerbitzua ez emateari buruz Ion Iñaki Erro Armendáriz, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentari jaunak eginiko galdera dela eta, honako erantzun hau bidaltzen du Osasun Kontseilariak:

Zerk eragozten du Andosillako biztanleei zerbitzu hori ematea?

Andosillako kontsultategian Mediku Orokor batek eta OLT batek lan egiten dute. Ez dago Administrazio Laguntzailerik, eta, beraz, aurretiko zitarik ezin daiteke eman.

Zer neurri hartzea aurreikusten du Nafarroako Osasun Zerbitzuak Andosillako kontsultategian aurretiko zita zerbitzua emateko?

Neurririk azkarrena eta egingarriena Andosillako Kontsultategian fax bat jarri eta aurretiko zitarako deiak San Adriango Osasun Zentroan jasotzea izango litzateke. Honela, Andosillako Kontsultategian egunero San Adriango Osasun Zentroko administrazio-langileek zita emandakoen zerrenda jasoko litzateke.

Parlamentuko Erregelamenduko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko urriaren 10a

Osasun Kontseilaria: Santiago Cervera Soto

Ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruzko galdera

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikuluan ezarritakoa betez, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak ozono geruzari kalte egiten dioten metil bromuroa eta beste gai batzuk gure Komunitatean gutxiago erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Galdera hori 1997ko urriaren 6ko 64. zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1997ko urriaren 18a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

ERANTZUNA

Metil bromuroa eta ozono-geruzari kalte egiten dioten beste gai batzuk gure Komunitatean erabiltzeari buruz José Javier Sánchez Turrillas, "Socialistas del Parlamento de Navarra" Parlamentari Taldeari atxikiriko Foru Parlamentariak idatziz erantzun dakion eginiko galdera dela-eta, honako erantzun hau bidaltzen du Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilariak:

1.- Metil bromuroaren eta ozono-geruzari eusteko kaltegarritzat jotako beste gai batzuen erabilera dela-eta, zer daki egoki den Nafarroako Gobernuako Departamentuak? Zer jarraipen egiten du? Zer gai edo produktu dira? Zenbat erabiltzen da gure Komunitatean? Zertarako?

Metil bromuroak fitosanitario gisa dituen propietateak maila teknikoan arras ezagunak dira Nafarroan, produktu hori nahikoa ezezaguna eta oso gutxi erabilia izan arren.

Nafarroari egozten zaizkion urteroko kontsumoko 91 tonak gehiegizko neurketa bat dira, egoitza Nafarroan daukaten hainbat enpresak erosten duten baina neurri handian gure Komunitatetik kanpo kokaturiko ustiategietan erabiltzen den produktu bati baitagokio. Izan ere, gure Komunitatean urteko 5 tona bakarrik erabiltzen dira. Honekin ez da esan nahi arazoa kanpora eramateagatik ingurugiro-kaltea murriztu egiten denik, baizik eta gure Komunitatean egiten den erabilera murriztua dela eta, are, teknikoki baztertua ohiko gomendioetan.

Metil bromuroaren erabilera normalki intentsifikazio-maila altuko laborantzari -alegia, Nafarroako Erriberako laborantzarena baino intentsifikazio-maila altuagoa duenari- lotua dago, eta baratze-

zaintza intentsiboko aldeetan, negutegietan, mintegietan eta abarretan erabili ohi da.

Nafarroan, orain dela hamar urte baino gehiago, eta ozono-geruzari kalte egiteagatik produktu hauek murrizteko mugimendua sortu aurretik, egoki iritzi zitzaion nekazariei egindako gomendioetatik metil bromuroa kentzeari, agresibitate biologiko txikiagoko teknika eta substantzia alternatiboen erabilera sustatuz.

"Instituto Técnico y de Gestión Agrícola" delakoak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren laguntzarekin, desinfekzio-modu ezberdinen erabilera bultzatu du: ur-lurrinaren bidezkoa, solarizazioa, bestelako molekulak eta abar. Desinfektatzaile desberdinekin lortzen diren emaitzak alderatzeko eta saiakuntzak egiteko inbertsio garrantzitsuak egin ere egin dira.

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak estatu-mailan eta gainontzeko Autonomi Erkidegoekin batera parte hartzen du metil bromuroaren erabilpenaren jarraipenerako Nekazaritza Osasuneko Zuzendaritza Orokorra sustatzen duen programan. Gainera, gainontzeko produktu fitosanitarioekin bezala, produktu fitosanitarioen erabilera kontrolatzeko programa bete egiten da, egindako eskakizunen gainetik ere, hondarren gehieneko mugak aplikatzeko plan klasikoak eta berriki abian jarri diren produktu fitosanitarioen merkaturatzearen eta erabiltzearen kontrol-planak osatuz.

Bestalde, metil bromuroaren erabilerari jarritako murriztapenak egiaztatze eta betearazteko ekintza berezietarako proposamenak badaude. Autonomia Erkidegoek horietan zerikusia izango dute, egoki diren unitate arduradunen bitartez. Proposamen hauek izapidatzen ari dira. Dena den, indarreko legediak aurreikusten ditu jadanik, modu orokorrean bada ere, produktu horren erabileraren kontrola eta jarraipena.

Ozono-geruzaren suntsipenean beste hainbat produktuk izan lezakeen zerikusiarik dagokionez, ez dugu informaziorik produktu horien kontsumoari buruz. Metil bromuroari bakarrik egiten ari zaio jarraipen berezia.

2.- Nafarroako Gobernuak ba al du nolabaiteko partehartzerik Ingurugiro Ministerioak abiarazi duen programan, aipatu gaien ordezkioak ikertu eta garatzeko?

Metil bromuroaren erabileraren alternatibei buruzko INIAren bidezko elkarlaneko ikerketa-proiektuan ez du Nafarroak parte hartzen. Kontsumorik haundieneko Autonomi Erkidegoek parte hartzen dute. Hala ere, proiektu horren emaitzen berri horiek sortzen joan ahala izango dugu.

3.- Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du ozono-geruza bereoneratzeko jardueraren bat egitea?

Bitarteko ekonomiko edo legezkoak erabiltzen dituzten ozono-geruza bereoneratzeko neurri gehienek estatu- eta, are, Europa-mailako ekimenak beharrezko dituzte. Eremu honetan, autono-

mia- edo toki-mailako ekimenek zentzu haundia- goa dute marko orokor hori garatzeko neurriei loturik baldin badaude, heziketa- eta informazio- ekintzak kasu. Nafarroako Gobernuak horrelako neurriak bultzatzen jarraituko du, batez ere ingurugiro-heziketarako programen barnean.

Nafarroako Parlamentuko 184. artikulua eta hurrengoek xedaturikoa betez jakinarazten dizut hau.

Iruñea, 1997ko urriaren 14a

Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Kontseilaria: Yolanda Barcina Angulo

H Saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Nafarroako Energi Aurrezpenerako programa

INDUSTRIA, LAN, MERKATARITZA ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSIA

Industri, Lan, Merkataritza eta Turismo Batzordeak, 1997ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, Nafarroako Energi Aurrezpenerako Programa onetsi zuen eta hurrengo erabaki-proposamenak gehitu zizkion:

1. Dituen ondorio bereziengatik eta Talde guztiek Energi Aurrezpenerako Plana garatu ez ezik, ahalik eta arreta handienarekin burutu dadin duten interesagatik, beharrezkotzat jotzen dugu:

Lehena:

Berri emateko kanpainak abiaraztea hainbat mailatan:

a) Enpresen artean, gagozkion arloan beharrezko aldaketak sustatzeko aurreikusitako diren dirulaguntza eta onuren berri emanez.

b) Gizartean, erabileren aldaketa sustatuz: ohiko lanparen ordeztu gutxi gastatzen dutenak jarriz eta abar lortzen den kontsumo-gutxitzeari buruzko datuekin.

c) Hezkuntzan, ikastetxeen bitartez, ohitura berriak ezarriko dituen prestakuntza-gai osagarri gisa.

Bigarrena:

Foru Administrazioaren beraren baitan azterlana burutzea, jarduketara-egutegi eta guzti, bai Nafarroako Ospitaleko esperientzia zabaltzeari dagokionean, kogenerazioak eragindako aurrezteari buruzkoan, bai energi kontsumoa gutxitzeko auto-

matismoak sartzeari dagokionean; hori guztia, eredu izateko helburu argiarekin, erabilitako neurrien eta lortutako helburuen berri emanez lortuko dena.

Adierazi diren helburuak erdiesteko, "Nafarroako Energi Aurrezpenerako Planaren berri emateko Kanpainak" izeneko aurrekontu-kontusaila paratuko da eta lortu nahi diren helburuak erdiesteko nahikoa dotazio izango du eta 98 eta 99. urteak hartuko ditu, bereziki, etengabeko ebaluazioekin eta diseinu-zuzenketekin".

2. Programaren azken orrialdean beste lerroalde bat sartu, hurrengo testuarekin:

"Gutxienez urtean behin, lehenengo seihilekoaren barruan, Energi Aurrezpenerako Programaren bilakaera, betetzea eta ebaluazioaren berri emango dio Nafarroako Gobernuak Parlamentuari".

3. Azken orrialdean beste lerroalde bat sartu, hurrengo testuarekin:

"Programaren funtsezko aldaketa dakarten egintzak edo jarduketak gertatzen diren bakoitzean, Nafarroako Gobernuak horren berri eman beharko dio Parlamentuari".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikulua xedatua betez, argitaratzea agintzen da.

Iruñea, 1997ko azaroaren 7a

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía